

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URRUNAGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lehiaketa publikoa, VI-10181 esparruko ehiza aprobetxamenduarena

Lehiaketa publikoa, "Eribe" izeneko VI-10181 ehiza esparruko ehiza aprobetxamenduarena, zeina Okoizta, Buruaga, Eribe, Gopegi, Nafarrete, Urrunaga eta Zestafeko jurisdikzioetako lurrek osatzen baitute eta titularra, jabe taldearen ordezkartzan, Urrunagako Administrazio Batzarra baita, administrazio batzar horretan interesdunen eskura dauden baldintzen arabera.

Lizitazio oinarria da hamaika mila bederatziehun eta hirurogeita bat euro eta hamabost zentimo (11.961,15 euro) urteko, BEZa barne; gehiago eskainiz hobetu ahal izango da.

Behin betiko bermea esleipen zenbatekoaren ehuneko bost (ehuneko 5) izango da.

Ehiza esparruaren ehiza aprobetxamendurako errentamendu aldia hamar urtekoa izango da.

Eskaintzak aurkezteko zortzi egun naturaleko epea izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

"Eribe" izeneko VI-10181 ehiza esparruaren aprobetxamendua esleitzeko, Arabako Foru Al-dundiaren Nekazaritza Sailak esparrua onetsi behar du aurretik, dagokion foru agindua sinatuta.

Urrunaga, 2020ko irailaren 15a

Lehendakaria

JESÚS CARLOS ORTIZ DE MONTOYA